

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

60.000 erromes baino gehiago igaro dira Orreagatik urtarriletik iraila bitarte

2014an Santiago bideko ibiltarien kopurua gaituzko da berriz; 2013an, 63.926 izan ziren

Lunes, 13 de octubre de 2014

60.394 erromes igaro dira aurtengo urtarriletik iraila bitarte Orreagako aterpetxe nafarretik; 2013ko aldi berean, berriz, 59.057 izan ziren. Aurtengo erromes-kopuru horretatik, 19.669 Estatukoak dira eta 40.725, atzeritarrak.

Urteko hurrengo hilabeteetan joera horrek jarraitzen badu, bisitarien kopurua gaituzko da berriz: 2013an, 63.916 izan ziren, eta 57.606, 2012an. Horrela adierazten dute Espainiako

Bide Frantsesaren sarreran dagoen Orreagako Aterpetxeko datuek.

Erromesek Nafarroa udako hilabeteetan, ekainean nahiz uztailan, zeharkatu dute batez ere, eta atzetik datoz maitza eta abuztua; azken bi hilabete horietan atzerriko erromes asko batzen da beren oporraldiak baliatzen dituztenak Santiago bidea egiteko. Haien artean, frantsesak, italiarrak eta alemanak dira gehienak, eta bereziki Italiatik etorritako erromes-kopurua apur bat igo egin da.

Aipagarria da erromes korearrak eta iparamerikarrak beren presentzia bikoiztu zutela Santiago bidean, Nafarroatik igarotzean, 2013. urtean, Hego Koreako Kim Hyo Sun idazle eta kazetariak idatzitako best-seller-agatik eta AEBetako [The Way pelikulagatik](#), [Martin Sheen protagonista duena](#).

Hala, egiaztatu da, azken urteotan kultura eragin handia izaten ari dela [Santiago bideko](#) erromesen jatorrian. Duela urte batzuk bidaiari brasildarrek Santiago bidearekiko interesa areagotu zuten Paulo Coelho idatzitako nobelaren ondoren, eta baita alemanena ere Hape Kerkeling-en liburua argitaratu ondoren; 2013an, berriz, iparamerikarren txanda izan zen, eta neurri txikiagoan, Hego Koreako erromesena.

Bidaiarien datuak

Bestalde, Nafarroako turismo-behatokiko datuek baieztatzen dute



Erromesak Garestik pasatzen.

aurtengo abuztura arte, 826.673 bidaiari Nafarroako turismo-establezimenduetan hartu dutela ostatu, hau da, 2013ko zifra baino % 9 gehiago.

Bidaiarien % 59,2 hoteletan izan dira, % 15,1 ostatuetan, % 13,4 kanpinetan, % 8,1 landetxetan eta % 4,1 turismo-apartamentuetan.

Horrenbestez, hoteletako establezimenduetan % 7,8 bidaiari gehiago izan dira, landetxetan % 23 gehiago, kanpinetan % 6,7 eta apartamentuetan % 11,2 gehiago. Bidaiarien igoera garrantzitsu hori Estatuko batez bestekoaren gainetik dago gaur egun (% 4,4).

Gauza bera gertatzen da gualdiei dagokienez, 2013an baino % 7,4 gehiago fakturatzea ekarri baitute (1.760.366 gualdi).

Bidaiari guztietatik, % 74 Espainian bizi ziren eta % 26, atzerrian. Estatuko turismoa % 8,5 igo da Nafarroan eta nazioartekoa, % 10. Bidaiarien % 24,8 EBeko herrialdeetakoak ziren, % 15,8 EAEkoak, % 12,8 katalanak, % 11,5 madrildarrak eta nafarrak, berriz, % 9,3.

Bezero katalanak 2013koak baino % 15,7 gehiago ziren; euskal bezero nahiz madrildarren kopurua % 10,5 igo zen eta europarra, % 8,6.

2014an, 202.633 nazioarteko turistek pasa dute gaua Komunitatean abuztura arte; 2013an, 172.931 izan ziren, hau da, % 17,3ko igoera izan da.